

Bitza duina helburu, Greba Orokorak aldaketa sozialak eta burujabetza hauspotzeko balio behar du

Gaurko prentsaurrekoaren helburua kurtsu hasiera markatzen ari diren aktualitateko gai nabarmenen irakurketa egitea da.

Europak, europar funtsen bidez, honezkero zehaztu du zein izango den krisi sistemiko honi eman nahi dion erantzuna. Sistema hau ez da sustengatzen eta aldaketak ekidin ezinak dira baina ez dago paradigma aldaketarik, **ez da kapitalismoa auzitan jartzen, berregokitzapen bat planteatzen da, birmoldaketa bat**, beti ere kapital transnazionalaren interesak zainduz.

Ekonomian diru publikoa sartzearen alde egin da trantsizio energetikoa edo digitalizazioa bezalako erronkei aurre egiteko. Esku-hartze publikoa diru publikoa esku pribatuetara lekualdatzera mugatzen da, merkatuaren logika apurtu gabe eta ekonomiaren gaineko kontrol eta esku-hartze publikorik gabe.

Diru publikoa esku pribatuetan, irabazi pribatu bihurtzen dena. Funts hauek jaso ditzaketen enpresak Tubacex-en antzerakoak dira. Edo energiaren sektoreko enpresak.

Uda honetan, eskandaluzko igoera izan du **argindarraren prezioak**. Argindarrarekin gertatzen ari denak oso ongi islatzen du salatzen ari garena. Energia oinarri-oinarrizko eskubide bat da eta energia bezalako sektore estrategikoak enpresa pribatuen esku ezin dute jarraitu, jabetza eta kontrol publikoa bermatu beharko lirateke, izan ere energiaren oligopolioari enpatia soziala eskatzea txiste bat da.

Estatuetako gobernu zein instituzio autonomikoak Europak zehaztutako gidoia jarraitzen ari dira.

Madrilen Elkarrizketa Sozialaren Mahaia irekita dago:

- **Lan harremani dagokionez**, azken urteetan erreformaz erreforma, prekaritatea legeztatu da, negozioazio kolektiboa zentralizatu eta ahultzearen aldeko aukera egin da eta ia erabateko boterea eman zaie enpresei, nahieran ari daitezten. Ez dago inolako orekarik.

- Eraldaketa handi baten premia dago. Lan guztiak aitortu, banatu eta duindu behar dira, zaintza barne. Horretarako, **bertan behera utzi behar dira 2010 eta 2012ko lan erreformak. Estatuan ez dugu ikusten, ez dugu uste horretarako indar korrelazio nahikorik dagoenik.**

- Eztabaida Elkarrizketa Sozialaren esparrura eramanda **beto-eskubidea ematen dio** gobernuak **patronalari**. Bi sindikatu nagusiek ez dute nahikoa presio sozial egiten. Elkarrizketa sozialeko mahaiaren emaitzak langileei mesede egitea nahi badugu, kalean presio sozialerako dugun gaitasunaren araberakoa izango da hori.

- Elkarrizketa Sozial horretan LGS igotzeaz hitz egiten ari da. LABek eta herri honetako gehiengo sindikal eta sozial urteak daramatza batzbesteko soldataren %60koa izango den gutxieneko soldata aldarrikatzen. 1.200 eurotako soldata izan zen azken Greba Orokorreko aldarrikapen nagusienetakoa. Greba haren testuinguruan planteatu genuenakordio interprofesional baten beharra, besteak beste, gutxieneko soldata bat aldarrikatzeko. LABek batzbesteko soldataren %60aren erreferentzia hori eguneratu du eta 1.400 eurotan zehaztu du.

- Pentsioen kasuan are kezkatuago gaude. Izan ere, Elkarrizketa Sozialeko espazio hau izan da pentsio publikoen **murrizketari ateak parez pare ireki dizkiona**.

KPIren araberako pentsioen igoera izan da pentsiodun eta sindikatuen aldarrikapenetako bat, baina horrek ez du pentsio duinik bermatzen. Erretiro adina atzeratzea sustatzen da, esaten dute iraunkortasun faktorea desagertu dela, baina ematen du izena aldatuko diotela eta antzerako beste adierazle bat adostuko dutela. Bestalde, Gobernuak adierazi du asmoa duela enplegu pentsioen plan pribatuak zabaltzeko. Guzti hauek pentsio sistema publikoari egindako murrizketa berriak dira.

Lan eta pentsio erreforma guztiak atzera botatzen ez diren bitartean, zerbitzu publikoen pribatizazio eta murrizketa politikak bere horretan jarraitzen duten bitartean, edo lan guztiak aitortu eta balio berdina emateko apustu ausartik ez badago, bizi-baldintzek prekarizatzen jarraituko dute.

Emakumeok jasaten dugu diskriminazioa ez da desagertuko, batzutan muturrekoa den zaintza arloan ari diren emakumeen laneko esplotazioa ez da desagertuko, ezta migranteek bizi dutena ere. Gainera, ez dugu ahaztu behar bizitza duinik gabeko etorkizunera kondenatu nahi direla gazteak.

Eta testuinguru horretan, langileentzako ez dago hazkunderik – Pandemiaren datuek arnasa eman bezain laster, patronalak eta alderdi sistemikoek hazkunderik hitz egingo digute, BPGren bilakaera positiboaz, suposatuz bilakaera hori berez positiboa izango dela langileentzat. **Logika kapitalistari erantzuten dion adierazlea da**, ez du bermatzen sortzen den aberastasuna modu orekatuan banatuko denik, ez ditu lan guztiak kontuan hartzen eta ez du kontuan hartzen aberastasun hori sortzeko uzten den aztarna ekologikoa.

LANGILEOK ALDAKETAK BEHAR DITUGU: bizitza erdigunean kokatuko duen eredu berri baterako trantsizioa egin behar da. LABek trantsizio ekosozialista eta feminista aldarrikatzen du.

Azken hilabeteetan, sindikatuak eraldaketa horretarako egindako proposamenei buruz eztabaidatzen eta ekarpenak jasotzen aritu gara. Ariketa hau afiliazioarekin eta eragile sindikal eta sozialekin egin dugu, eta proposamenak PROGRAMA SOZIOEKONOMIKOAN jaso ditugu. Datozen asteetan osorik aurkeztuko dugu programa hori.

Sistema eraldatu nahi dugu. Garapen-paradigma berri bat eraiki behar da, indarrean dagoen ekoizpen- eta kontsumo-eredua aldatuz, eta aurreratu dugu, LANA, PENTSIOA ETA BIZITZA DUINA bermatzeko, bi lege-proiektu proposatzen ditugula: EUSKAL HERRIAREN LAN-KODEA eta GIZARTE SEGURANTZAREN LEGEA. Nahiko lan sakona egin dugu testu artikulatu zehatz batekin.

Erabakitzeko gaitasun handiagoa behar dugu Lan Harremanen eta Babes Sozialaren Euskal Esparrua eraikitzeko, esparru sozioekonomiko propioa. Beraz, trantsizio hori nahitaez lotuta dago autonomismotik burujabetzara doan bidearekin. Euskal Herria eraldatzeko, Euskal Herriak erabaki behar du.

Datozen hilabeteetan, **estatuaren lurralde-ereduaren krisiak eta hura bideratzeko beharrak agenda politikoan zentralitate hartuko duela dirudi.** Gure lana izango da borroka politiko horretan langileen interesak bermatzea. Funtsezko gaietan, hala nola enpleguan, pentsioetan edo gizarte-babesean, eskumenak eta legegintza-gaitasuna behar izatea eskatuko dugu.

GREBA OROKORRA: langileok kalean gaude aldaketa horiek bultzatzen eta haien alde borrokatzen. Maiatzaren Lehenean, LABek mahai gainean jarri zuen urrats berriak eman behar zirela ziklo mobilizatzaile horretan, eta adierazi zuen egoerak beste Greba Orokor bati buruzko eztabaida irekitzea eskatzen zuela.

Hilabete batzuk geroago, gero eta gehiago dira ideia horrekin bat egiten duten ahotsak. Dagoeneko gehiengo sindikala gara grebaren beharrarekin bat egiten dugunak, pentsiodunak ere zentzu berean azaldu dira.

Greba orokorrak, lantokietan eta kalean ematen ari diren borroka sindikalak eta sozialak bultzatzeko eta bateratzeko balioko du.

Greba hori **ofentsiban** planteatu beharko litzateke:

- Patronalari aurre egiteko eta argi uzteko ez dugula onartuko, prekaritatea ezartzen jarraitzea eta lantokietan enplegu duinaren alde borrokatzea.
- Madrilgo Gobernua presionatzeko balio behar du, lan eta pentsio erreformak bertan behera uzteko eta murrizketa gehiago ez ezartzeko.
- Gobernu autonomikoak interpelatu behar ditu, itunaren eta hitzarmenaren aukerak erabil ditzaten fiskalitatearen arloan bira emateko, zerbitzu publikoak indartzeko eta bestelako politika publikoak bultzatzeko.
- Burujabetza eta esparru propioa edukiz betetzeko dugun eskubidea aldarrikatzeko balio behar du, inolako esku-sartzerik gabe.

Bilbon, 2021ko irailaren 1ean